

→ HAURREK PIXOIHALAREN DERMATITISA DUTENERAKO GOMENDIO ERABILGARRIAK



Ohiko arazoak haurtzaroan

ZER DA ETA ZERK ERAGITEN DU PIXOIHALAREN DERMATITISA?

Normalean pixoihalak estaltzen duen larruazalaren eremuaren hantura izaten da. Larruazala gorritu egiten da, sentikorrago dago eta batzuetan zauriak ere izaten dira, eta horrek ondoeza eta suminkortasuna eragiten dizkio haurrari.

Oso ohikoa da edozein pixoihal mota erabiltzen denean. Batez ere bizitzako lehen urteetan sortzen da, eta are ohikoagoa da larruazal sentikorra duten haurretan.

Dermatitisa izaten dute substantzia narritagarriekin kontaktuan daudelako, adibidez hauekin:

- Gernua eta gorozkiak.
- pixoihalen osagaiak edo garbitzeko paper-zapiak (koloratzaileak, lurrinak, gai kimikoak).

Ingurua gehiegi garbitzeak ere narritadura eragin dezake.

Duela gutxi tratamendu antibiotikoa hartu badu, baliteke onddoengatikoko infekzioa (kandidiasia) izatea pixoihalean.

Pixoihalaren dermatitis gehienak etxean trata daitezke, eta



NOLA ARINDU SINTOMAK

- Aldatu pixoihala maizago. Aldatu pixoihala bustita dagoenean edo gorozkiz zikin dagoenean, edo aldatu pixoihala 2-3 orduz behin.
- Ahal izanez gero, utzi pixoihalik gabe zenbait orduz egunero, dermatitisa duen eremua aire zabalean izanik.
- Eremuaren garbiketa:
 - > ur epela eta oihal leun bat erabili.
 - > xaboia erabiltzen baduzu, erabili xaboi leun bat, pH fisiologikoa duena, lurrinik gabea eta kantitate txikitik.
 - > zapi hezeak erabiltzen badituzu, lurrinik eta alkoholik ez dutenak aukeratu.
 - > ukitutxo leunekin lehortu, baina igurtzi gabe.
- Hesi-efektudun kremak erabil daitezke, zink oxidoa dutenak; larruazalera atxikitzen dira eta hezetasunarekin kontaktua izatea ekiditen dute. Crema lodienek hesi-efektu handiagoa dute. Ez da beharrezkoa crema guztia kentzea pixoihala aldatzen den bakoitzean.
- Ez erabili talko-hautsik, zaurietan itsatsita gera eta arnastu ere egin litezke eta.

➔ HAURREK PIXOIHALAREN DERMATITISA DUTENERAKO GOMENDIO ERABILGARRIAK

EGIN KONTSULTA BALDIN ETA...

- Ondoez handia badu edo ez badu normaltasunez jaten edo lo egiten.
- Larruazala aipatutako neurriak aplikatzen hasi aurretik baino okerrago badago.
- Narritadura ez bada hobetzen egun batzuk igaro ostean.



INFORMAZIO INTERESGARRIA



Pixoihalaren dermatitisa (AEPap)